


Herri Aldizkaria

1996



ORREKALIZABEN

ZINTZO
MINTZO

ELKARTEA

SANTA ANASTASIAK ARGAZKITAN



Argitaratzailea: Zintzo Mintzo Euskaltzaleen Elkarte, Labeaga kalea 12, 20.700 Urretxu. Tel: 725775 **Koordinatzailea:** Amaia Pildain. **Erredakzio kontseilua:** Jone Aldalur, Jon Balenziaga, Aitor Esnal, Mari Paz Etxeberria, Jonmikel Insausti, Sebas Iturrioz, Idoia Luzuriaga, Jon Ormazabal, Amaia Pildain, Marian Toledo, Anakris Zabala. **Kazetariak:** Jone Aldalur, Jon Balenziaga, Mari Paz Etxeberria, Idoia Luzuriaga, Jon Ormazabal, Amaia Pildain, Andoni Salamero, Marian Toledo, Anakris Zabala, Asier Zaldúa. **Publizitatea:** Jon Balenziaga eta Idoia Luzuriaga. **Diseinua:** Sebas Iturrioz. **Maketazioa:** Amaia Pildain. **Informatikaria:** Jonmikel Insausti. **Banaketaren arduraduna:** Aitor Esnal. **Kolaboratzaileak:** Bertso eskola. **Inprimategia:** Iparragirre inprimategia, Urretxu. **Lege Gordailua:** SS-742/96 **ISSN:** 1136-7318 **Tirada:** 1.500 ale. **Otamotz** aldizkariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esaneren eta iritzien erantzunkizunik.

AURKIBIDEA

- 3. **Bertsoak**
Santa Anastasiak
- 4.-5. **Labur esanda**
- 6.-10. **Santa Anastasiak argazkitan**
Festak argazkitan



- 14 **Elkarrizketa**
Santi Perez Atlantán izan da, Diego Garcia eta Martín Fizekin



TELEFONOAK

UDALAK:

Urretxuko udala:.....720151
Udaltzaingoa:.....722597
Zumarragako udala:.....723011
Udaltzaingoa:.....721562

LARRIALDIAK:

Anbulategia:.....724900
Ospitalea:.....723913
Gurutze Gorria:.....725364
Ertzantza:.....724050

KULTURA:

Kultur Etxea:.....724170

KIROLAK:

Aldiri polikiroldegia:....720780
Ispila polikiroldegia:....721761
Beloki pilotalekua:.....720293
Ederrena pilotalekua:..724662

HEZKUNTZA:

Gainzuri ikastetxea:....721214
Garaialde lizeoa:.....722112
Ikastola:.....720026
Institutua:.....721413
Legazpi eskolak:.....721514
Musika eskola:.....725226

HIZKUNTZA:

Bisasti euskaltegia:.....720458
Udal euskaltegia:.....723310

KOMUNIKABIDEAK:

Eusko Trenbideak:.....150746
PESA:.....761646
Taxiak:.....720151
RENFE:.....721515

Santa Anastasiak

*Buruhandiak eta barrakak
gastronomi lehiaketa
dantzari eta kantari denei
jarri diegu arreta
euskal jaia ere ezin zen falta
jaien bihotza da eta
hurrengo jaiak noiz iritsiko
gaude irrikaz beteta.*

*Parre algaraz aritu dira
aitona eta amona
nahiz ez den izan denok nahi gendun
eguraldi guztiz ona
festak amaitu zaizkigu eta
lana iritsi da hona
dagoeneko igaro dugu
guztiok biharamona.*

DOJNUA: Hara nun diran




ANTTON FERNANDEZ LASA

Iparragirre biluzik

Joan zen igandean, Urretxuko kaleetan kartel deigarri bat ikusi nuen. Iparragirre biluzik, gitarra bere intimitateak izkutatzekeo altueran zeukala. Kartelak oinean zioen: "Euskara gabe biluzik nago". **Zintzo Mintzo** euskararen aldeko talde gazteak zabaldua zen kartela. Igande horretan, aurten hirugarren aldiz, tradizio handi eta hunkigarria bihurtzeko bidea daraman ekimena berri zuten. Gaueko hamaikak eta erdietan, erromeri plazan, kandela piztea izango zen, horretarako inguruko argi publikoak itzali ondoren. Aurrez jendeari banatutako kandelatxo bana bakoitzak eskuan pizturik zeukala, euskararen aldeko errepika bat eta koplak batzuk eta beste bertso saio labur bat izango zen, toberak lagundurik, eta amaitzeko "Euskal Herrian Euskaraz", denek abestua.

Ordu erdiz, beherako ekitaldi bat, "Euskara, piztu hadi kalean" aldarrikatuz bezala. Esan gabe doa plaza jendez bete zegoela, batez ere gazteak eta gaztetxoak. Ekitaldiaren ondoren, **Zintzo-Mintzo**ko mutilek gizonetzko krabelin gorriak eta neskek emakumezko zuriak banatuko zizkieten, zenbaki batekin. Zenbakiak lore zuri eta gorrietan errepikatzen zeuden eta bakoitzak bere bikote-kidea aurkitu behar zuten, musika-taldea joko zuten pieza bat dantzatzeko. Ligatzeko eta maitatzeko ere, euskara onena. Ondorioen berririk ez dakit, baina jendea gogoz ari zen dantzan eta suposatzen dut euskaraz ariko zela, aurreko ekitaldian bere alde hain ozen



eta gogotsu kantatu ondoren. Ekimen polita ezta?

Iparragirreraren biluztasun deigarria herritar batzuek iraingarritzat hartu zuen nonbait eta zenbait kartel apurturik edo erauzirik ageri zen. Jende guperak mezuari baino irudiri gehiago begiratu zion nonbait, nahizta gero agian aldizkari edo tele-zakar pornografikoetan, ez gustorik ez mezurik ez daukatenetan, sudur-begiak gustora sartu. Datorren urtean pertsonaia intokableago bat (aita santua, adibidez) desafio hartan jartzen badute, ziur naiz Iparragirrerena birbaleraturik aterako dela. Badakigu gure kantarien patriarka eta bertsolarien eredu atipikoak 'Gernikako Arbola' itzaltsua sortu zuela, baina ez dakit, ba, bera hain mundukari kasto izan zen beti.

Argi suposatzen dudana da hark aldarrikatzen zuen "eman ta zabal zazu mundun frutua" hartan euskara zela aurrenetariko balorea, urrenengoa ez bazen. Eta horixe da Urretxuko eta Zumarragako **Zintzo Mintzo**tar gazteek hainbeste lanez eta ilusioz zabaltzen saiatzen direna.

Uste dut Iparragirreraren sorterrian haren biluztasunak euskraz jantzia izateko nahiko premia zorrotza daukala. Kastitate puritanoa munduko nonahi praktika daiteke, baina non maitatu behar dugu euskara, Euskal Herrian ez bada? Eta maite duela esan eta praktikatzeko ez duena adulterorik faltuena da.

Xabier Amuriza
EGIN, 1996-09-25

Aldizkari honek Urretxu eta Zumarragako udalen laguntza jaso du



ZUMARRAGAKO
UDALA



URRETXUKO
UDALA



Argazkia: Jose Ramon Rodriguez

□ **Iñaki Urdangarini omenaldia**

Abuztuaren 28an Zumarragako udalak, **Iñaki Urdangarin** jaiotzez zumarragarra den Bartzelonako eskubaloi taldeko jokalaria omendu zuen. Goizean, udaleko ordezkariak eta Foru Aldundiko kirol diputatuak, Arritxu Marañonek, ongi etorria egin zioten Iñaki Urdangarin eta Bartzelona taldeko jokalariei. Ilunabarrean, Bartzelona eta Leongo Ademarren arteko eskubaloi partida jokatu zen eta kataluinarrak izan ziren irabazleak.



Argazkia: Renedo



Argazkia: Renedo

□ **Zaletu ugari Goierriko itzulian**

Afizionatu mailako txirrindulari onenak bildu ziren hilaren 13tik 15era bitartean Urretxun, bertako Goierri Kirol Elkarteak antolatutako Goierriko Itzulian. KAIKU taldeko Alberto Martinez Trinidad izan zen irabazlea eta gustura asko jaso zuen inguratutako zaletu ugarien txalo zaparrada. Antolatzaileek, Iñaki Beitia, urteetan mikrofono lanetan aritu zena gogoratu zuten eta itzulia hasi aurretik omenalditxo bat egin zitzaien.

EDURNE

*Punta puntako moda
Aukerarik hoberena
gizonezko eta gazteentzat*

Piedad, 18 © 72 14 17 ZUMARRAGA

ALBAITARITZA KLINIKA

NEKOTZ

ANA ALUSTIZA ZABALETA

Filipinas uharteak, 5 ZUMARRAGA

- Ospitalizazioa • Txertaketak
- Elikadura • Xizpiak • Zirujia

Tel: 72 49 26

Larrialdiak: 31 04 04

6145 abonatua

❑ **Babes ofizialeko beste 80 etxebizitza Urretxun**

50 urtetan zain egon ondoren, Mundo Mejor auzoaren inguruan babespen ofizialeko 80 etxebizitza eraikitzeko lanak hasi ziren hilaren 11n. 98. urteko ekainerako lan guztiak bukatuta izango direla adierazi zuten udaleko ordezkariak eta Patxi Ormazabalak, Eusko Jaurlaritzako hirigintza eta ingurugiroko kontseilariak, udaletxean izandako prentsaurrekoan.



Argazkia: Renedo



❑ **Garbitasun araudian aldaketak**

Zumarragako udalak kaleei, etxebizitzetara eta bide publikoetara dagokien garbitasun araudian aldaketak ezarri ditu. Araudi berriaren arabera, besteak beste zaborrak ateratzeko ordutegia errespetatu, kaleak garbi mantendu, etxebizitzetara itxura zaindu eta landareak ureztatzerakoan ere kontu izan beharko dugu. Eraikitze lanetan diharduten langileek eta garraiolariek ere arreta berezia izan beharko dute laneko materiala garraiatzeko eta zaborretara botatzeko garaian.

❑ **Premiazko hitzak garai honetarako**

Hits & Fits bandak berriro ekin dio Premiazko hitzak garai honetarako hitzaldi zikloari. Hilaren 13an **Andu Lertxundi** idazlea izan zen Urretxuko Kultur Etxean. Hilaren 27an, berriz, **Pako Aristik** *Ez dok hamairu* musika taldearen berri ederki asko azaldu zien Legazpi Dorretxera inguratutakoiei. Pako Aristiren azalpenei laguntzeko **Mikel Alustiza, Juan Luis Aranburu eta Mikel eta Iñigo Peñagarikanok**, *Ez dok hamairu* taldearen zenbait abesti jo eta kantatu zituzten, hitzaldia modu ezin hobean girotuz.



KORTABERRIA

TABERNA

Pintxoak, Bokatak, Afariak

Kalebarren 26an gaude

ZUMARRAGA

Tfnoa: 72 04 67

Urdaneta, 7 behea
Tel: 72 37 09
20700 ZUMARRAGA



Plazaola, 1
Tel: 73 16 42
20230 LEGAZPI

INGELES • FRANTSESA • ALEMANA • EUSKARA




-n hizkuntza guztiak ikasi ahal izango dituzu munduan zehar arazorik gabe ibili ahal izateko

SANTA ANASTASIAK
1996, OSTIRALA



Haurak barraketan
eta buruhandiek in...



Batzuk plazan, kantuan....
eta besteok tabernetan, dantzatu eta
ligatu nahian.
(Gure argazkilari trebeak bigarren
aukera hautatu zuen.)

BIONA
AROSZTEGIA
Altzariak neurrira
& eta Faxe: 72 02 55
Erratzu, z/g 20700 URRETXU


ALGAR
Estetika zentroa
Depilazioa, masaiak, azal garbiketa
Ipeñarrieta 1-1.ezk.
URRETXU © 72 02 46


Lanbete
- estetika
- dietetika
Bidezar, 7 Tel.: 72 36 52 ZUMARRAGA



Aida, aida, beste plaza bat baietz egin!

SANTA ANASTASIAK
1996, LARUNBATA





Jo, Nerea, txundituta daukazu Otamendi!



Zer, txalo zaparradaren zain ala?

Katu txiki, katu maite, txintxo txintxo ibil zaitez.



Umm... Makailao honek beste txunpa txunpa horrek baino zaletu gehiago izango ditu. Bai horixe!

ALDCKI

Fotokopiak
Enkuadernazioak
Plano erreprodukzioak
Laser koloreko fotokopiak
Fax zerbitzua
Kamiseten inprimiketa
Plastifikazioak
Kolorezko inprimagailu zerbitzua (720pp)

IPINARRIETA kalea, 2, etxeazpia Tel.-faxa 724220
20700 URRETXU - GIPUZKOA


Darmanki

Edergintza

Edergintza tratamenduak
Depilazioak

Labeaga, 2 URRETXU ☎ 72 25 13

SANTA ANASTASIAK
1996, IGANDEA



ONGI ETORRI,
IPARRAGIRRE.
Zu zara bai,
erraldoirik
politena eta
kutunena.



**Karrozak
Protagonista**

Aurten ere,
karroza
bikainak ikusi
ditugu.
Zorionak egile
guztiei!!



Zein baino zein
dotoreago, modelo
bikainak benetan!



MASTER - Hezkor
CADPHIA

Zumarragako elektrogailu
erakusketarik handiena!

Prezio eta modeloetan aukera
benetan aparta!

Urdaneta Hiribidea, 5 ☎ 72 41 31
20700 ZUMARRAGA

ZUMALORE
LORATEGIA

Begoña Sagastizabal

☎ 72 51 90 - 72 06 76
Iparragirre hiribidea, 5 ZUMARRAGA

BAPRI

Animalidenda

Txoriak, arrainak, katuak, dordokak

Urdaneta, 3 ZUMARRAGA ☎ 72 61 13

**SANTA ANASTASIAK
1996, IGANDEA**



Juerga ondoren,
ezin ba hanka
altxa.

Oraindik ez
zaizue ahaztu
txistua jotzen
eh!



Aupa Xabier, hurrengo
urtean ere hemen izango
zaitugu ezta?



Hori da
hori,
ligatzeko
gogo!



On bila, on bila
azkenean
bonbila.



Mutua General de Seguros

Iparagirre, 11-etxeazpia
20700 URRETXU

© 72 25 99

ELIZ-KALE

L AUTOESKOLA

Bidezar, 11
20700 ZUMARRAGA

© 72 04 52


LIBURUADENDA

GANBARA


Labeaga, 52 Tel. eta Faxa: 72 50 45
20700 URRETXU

**SANTA ANASTASIAK
1996, ASTELEHENA**

Hau bai etxerako
moduko mutila!
A ze zerbitzaria!



Ene, hamaika
ikusteko jaio gara!
Zertan ari zarete,
Unai eta Gorka?



Bazkaldu baino lehen jendea txintxo, baina gero....

Hau pornografia hutsa
da. ♦♦


TXINDOKI
TABERNA

Txopitoetan berezitasuna

Secundino Esnaola, 18 ZUMARRAGA


ANSA

Ura guztion eskura!

S. Esnaola 34, etxeazpia
20700 ZUMARRAGA

© 72 04 23


ITURGINTZA



LUIS ANGEL

Gure erakusketan zain
gauzkazu!

Deskargarako bidea, z/g. © eta Faxes: 72 54 59




Marka guztiak hautsi gabe eh!



Fiu, fiu, Endika,
horiek dituk
hankak horiek!
Noiz depilatu
hintzen
azkeneko aldiz?

SANTA ANASTASIAK
1996, ASTELEHENA



Mikel, Mikel, txistoso
ibiltzen haiz festetan!!!



Hori da hori, afalondoa girotzea, hori.



MAPFRE
 Aseguru etxea
 S. Esnaola, 6 • © 72 20 00 - Fax: 72 24 00
 20700 - ZUMARRAGA


Keros
 Enmarkatze
 arte ederrak
 dekorazioa
 opariak
 Labeaga, 35 Tfnoa: 71 41 60 20700 - URRETXU


KIROL DENDA
 Gernikako Arbola plaza 5, behea A
 URRETXU
 Tel: 72 59 71

Argitarapen honen edizioiko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:


fundazioa
fundación

**TXALAPARTA
EGUNA**



Buli eta Angel,
zorianak egindako
lan bikainagatik.



Iriondo
legazpiarrak ere,
OTAMOTZen irten
nahi zuen



Ttakun, ttakun, zuek
ere badakizue txala-
parta jotzen eh!

**JUBILATUEN
EGUNA**



A ze kamarera koadrila!



Hori da jubilatuen
humorea hori, ondo
bazkaldu ondoren nola
ez ba dantzatu!



"Indurainekin hitz egiteko parada izan nuen eta dirudien bezain jatorra da."

"Oscar Smith brasildar saskibaloijokalaria betidanik mirestu dut eta igogailuan berarekin topo egin nuenean, txunditurik geratu nintzen"

"Diego eta Martin Asian oso ezagunak dira. Antolatzaileek beti hartzen dituzte kontutan."

"Fermin Cacho soriarra eta Diego Garcia asko sakrifikatzen dira, baina noizean behin juerga ere gustuko dute"

Santi Perez, Diego Garcia eta Martin Fizekin Atlantan

Atletismoari erabat loturik dagoen gizon hau, pasatu berri diren Joku Olinpikoetan izan da. Diego Garciairen entrenatzailea da duela 13 urtetik hona, hau dela eta, espainiar federazioak, bertara joateko gonpidapena luzatu zion.

Emaitzak ez ziren espero bezain onak izan, zergatik?

Diegok jasandako "flato"-a, edonork izan zezakeen. Urduri zegoen eta hezetasunaren beldurrez, ur dexente edan zuen. Hau izan daiteke arrazoi bakarra. Martin Fizek, ordea, aurrean zihozten hiru atletak bera egingo zutela uste zuen baina denok dakigun bezala, ez zen hala izan. konturatu zenerako beranduegi zen. Dena den, argi eta garbi utzi behar da Diego eta Martin sasoi betean zirela. Gertatutakoa maratoiaren gorabeherak dira.

Emaitzak alde batera utzirik, zer nolako esperientzia izan da?

Bikaina. Hiri Olinpikoko barneko elkarbizitza, ezin hobea. Olinpiko guztiak adiskidetasun giroan bizi ziren. Inor ez zen beste inor



baino gehiago, nahiz eta batzuk beste batzuk baino marka hobek eduki. Gu, brasildarrekin batera jarri gintuzten eta primerako jendea ezagu-tu dugu.

Antolakuntza, esaten zuten bezain txarra al zen?

Egia esan bai, batez ere garraioari dagokionez. Estadiora garaiz heltzeko eta jangelara joateko arazoak zeuden. Autobus eta trenak guztiz bete arte ez ziren irteten eta gero denok pilaturik eta berandu joaten ginen. Gainera, azken egunetan, langile bolondresak falta ziren eta behin, Hiri Olinpiko barruan ibiltzen zen tren, kirolari batek gidatu zuen. Bertako polizia batek ea zertan ari ginen galdetu zigun baina gero, guztion harridurarako jarraitzen utzi ziguten

•••••
• "Bonba lehertu
• zen gauean
• hirurok primeran
• lo egin genuen"
•••••

•••••
• "Primerako
• esperientzia
• bizi izan dut,
• baina maratoiaren
• emaitza hobek
• lortu ez izanak
• penatu nau"
•••••

•••••
• "Jokuen antola-
• kuntza nahiko
• eskasa izan da"
•••••

Beraz, amerikarrek merezi baina garrantzi txikiagoa eman zioten Joku Olinpikoei?

Bai, hala da. Atlantako hiritarrek jarraitzen zituzten Olinpiadak baina gero estatubaturrek ezer gutxi. Telebista amerikarrek jarraipen eskasa egin zieten Jokuei.

Bonba leherketak izango zuen oihartzuna?

Bai, bonbak jarraipen handia izan zuen telebistan eta honen ondorioz, seguritate neurri zehatzagoak hartu ziren. Gainera ondorengo egunetan, bonba mehatsu gehiago izan ziren eta atletismo federakuntzako buruak esan zidanez, Jokuak, bertan behera uzteko asmoa, guz-tiok uste genuena baina indartsuagoa izan zen. Gero komunikabideek esan zuten bezala, seguritateaz arduratzen zen langile bat izan omen zen. Hala ere, gau hartan hirurok primeran lo egin genuen.

Bukatzean, entrenatzaile bezala Sidneyra joateko esperantzarik ba al duzu?

Ez dut uste. Diegok jada 33 urte ditu eta beste lau urtetan goimaila mantentzea zaila izango du. Martin ordea gazteagoa da, baina beste Joku batzuetarako prestatzea sakrifizio handia da.



Aurtengo festak ere joan zaizkigu, eta aurten ere zerbait azpimarratzekotan jendearen parte hartzea azpimarratuko genuke. Egia esan herriko festen antolaketan makina bat jendek parte hartzen du, batzuk jende aurreran, beste batzuk, berriz, atzean, izkutuan.

Guk lerro hauen bidez urteetan izkutuko lanak, eta ez horregatik garrantzi gutxiko lanak, egiten dituzten horiek gogoratu eta omendu nahi ditugu. Hemen **Jon Polen** argazkia jarri dugu, baina zorionez herri honetan bere moduko asko dago.

Portatu zarete oraingoan ere! Segi horrela!

HAURRAK

Larunbatero goizeko 11etatik 1ak arte, **larunbatetan festara**, programa izango da Kultur Etxean. Bertan hurrek jokuak eta eskulanak egin ahal izango dituzte. Izen ematea Kultur Etxean egin behar da eta doan da.

MUSIKA

Urriko **igandeetan, udazkeneko XI. musika zikloa** izango da San Martin de Tours Elizan, iluntzeko 8etatik aurrera.

Urriak 6: **GOIARGI** eta **KIMETS** abesbatzak.

Urriak 13: **JOSU OKIÑENA** pianojolea

Urriak 20: Orioko **SALATXO** abesbatza.

Urriak 27: Ordiziako **OROITH** abesbatza

ERAKUSKETAK

Urriak 26: Eguerdiko 12:30etan Zumarragako udaletxeko areto nagusian, Urretxu eta Zumarragako udalek antolatutako **pintura eta argazki lehiaketako sarien banaketa**.

Urriaren 26tik azaroaren 3a bitartean **bi lehiaketetara aurkeztutako lanen erakusketa** izango da ikusgai. Aldaketa erakusgelan pintura lanak izango dira eta Itarte Etxean argazkiak ikusteko parada izango da.

ANTZERKIA

Urriaren 26an Pagoeta Antzokian eta gaueko 10:30etan, **Argentinako Teatro de la Llanura** taldearen "El clásico binomio" antzezlan izango da ikusgai.

ALDIRI K.E.

Urriaren 18,19 eta 20an **VIII. Mikologi** asteburua antolatuko du Aldiri Kultur Elkartek. Hitzaldiak, mendi irteerak, perretxiku sailkapena, erakusketa eta dastaketa izango da.

MAIRI

Urriak 15ean, **Alvaro Yruilek, menopausia eta depresioari** buruzko hitzaldia emango du Kultur Etxean, arratsaldeko 3:30etatik aurrera

MUSIKA BANDA

Urriaren 27an, Zumarragako **musika bandak** Zumarragako kaleetan joko du.

PALEONTOLOGIA

Urriaren 26tik azaroaren 3a bitartean, **harri eta paleontologiari buruzko IX. astea** ospatuko da.

II.ERREPUBLIKAREN INGURUKOAK**ARGAZKI ERAKUSKETA**

Irailaren 27tik urriaren 20a bitartean Itarte etxean, argazki erakusketa izango da.

HITZALDIAK

Urriak 4: **Karlistadak. Erregimen zaharretik aro modernorako bidea Euskal Herrian.** Arratsaldeko 7etan izango da Legazpi dorretxean eta **Antonio Prada** eta **Mikel Alberdi** izango dira hizlariak.

Urriak 18: **EUSKAL NAZIONALISMOAREN BILAKAERA.** **Joxe Azurmendik** hitzgingo du Urretxuko Kultur Etxean arratsaldeko 7etan.

LIBURUAREN AURKEZPENA

Urriak 18: "**II. ERREPUBLIKA URRETXU ETA ZUMARRAGAN**" Antxiñe Mendizabalen liburuaren aurkezpena eta bideo baten proiektzioa, Urretxuko udaleko areto nagusian, arratsaldeko 7etan. Aurkezleak **Juan Jose Arozena** eta **Angel Cruz Jaka** izango dira.

MEZA

Urriak 19: **Gerra Zibilean hildako herritarren aldeko meza**, San Martin de Tours elizan, arratsaldeko 7etan.

KULTUR IBILALDIA

Urriak 20: Goizeko 8etan Zumarragako parrokia paretik irten eta **Santa Lutzia-Anduagara** abiatuko da ibilaldia, bertatik oinez, **Ormaiztegiko Zumalakarregi museora** joateko.



Nor da hau?
sagar goxo gorria?
etxeke jostailua,
pitxia?
Ez, **Josune** txikia.
Zorionak potota!



Ene!
zure urtebetetzea
Leire
une polita
pasa ezazula
konpainia onen



Margarita se llama
mi amor, ariko
haiz kantatzen eh
Bixente?
Soldaduskan
mutil, sukaldean al
habil?



Mikel, zein naizen
asmatzen baduzu
txanpain botila eta
musu bat oparituko
dizkizut.
ZORRIONAK!
Epea zure
urtebetetzea arte.



Gaur, bihar, ala etzi
egin arren hemeretzi
animo **Jon** eta ez etsi,
hik heurareari eutsi



Zabaldu, zabaldu
urrun gure nahia:
Hau da egun alaia
zure urteak dira
Amaia

Herr Aldizkaria
otamatz

**Etxean doan jaso nahi baduzu
edota**

Iragarkiren bat egin nahi baduzu

Deitu 72 57 75 telefono zenbakira

BEJONDEIZUELA

jaietan euskara garatu duzuenoi

1.-Txoznak jartzeagatik edota jai antolatzeagatik Udalarekin izan dituzun "harreman administratiboak" **EUSKARAZ** garatu dituzuenoi, besteak beste, horrek administrazioa euskalduntzen lagunduko baitu.

2.-Txoznak edota jaiak eta euskal kulturaren aldeko tresna eraginkorrak izan daitezzen, dekorazioa, propaganda, oharrak, ekitaldiak eta argitalpen guztiak **EUSKARAZ** landu dituzuenoi. Eta nola ez, euskal kulturaren presentzia ziurtatzeko bitartekariak jarritakoei: euskal hizkuntza, euskal musika, euskal dantzak, euskal kirolak, euskal produktuak... Herriko jaiak euskal jaiak bihurtuko ditugu, "kultur harremanak" eta ekitaldia **EUSKARAZ** bideratuz.

3.-Jaien edota txoznen antolaketaren ondorioz sortutako 'harreman komertzialak' **EUSKARAZ** burutu dituzuenoi, mota guztietako probedoreei beren fakturak kobratzeko gure hizkuntzan idatziak jaso nahi dituzula adieraziz, horrek euskara mundu horretan sartzeko aukera zabaldu baitu.

4.-Jaiak bai, borroka ere bai, baina **EUSKARAZ**. Jaietan euskararen aldeko lanik onena ez baita "euskal jaia" antolatzea jaietako ekitaldiak, festarakoak eta borrokarakoak, gure hizkuntzan burutzea baizik.

5.-Eta nola ez, festetan "harreman pertsonalak" ere **EUSKARAZ** izan dituzuenak.

EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ ETA KITTO!!!!



HERRI BATASUNA

